



Ajangizko Udala

AJANGIZKO UDALAK 2009KO AZAROAREN 5EAN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Angel Luis Uribarri Gondra jauna
Jabier Berrojalbiz Bidaguren
Maria Angeles Goikolea Uriarte Andrea
Beñat Erezuma Arisketa
Roman Etxeandia Zabala*

Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2009ko azaroaren 5ean arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deialdia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, vilera hasten du.

1.- AZKEN BILERAKO AKTA IRAKURRI ETA ONESTEA, BEHAR BADA.-

2009ko irailaren 3an izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin onartzen da.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONEZPENA, BEHAR BADA.-

• **Irailaren 4ko 2009/77 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** AJANGIZen kokatua dagoen BI-3224 errepideko 35,2000 puntu kilometrikoan (garai hartan obretan zegoena), 2009ko ekainaren 6an bizikletaz erortzearen ondorioz sortutako kalteak direla eta J.M.U.k 2009ko abuztuaren 1ean udaletxean aurkeztu duen ondare erantzunkizun erreklamazioa **ez onartzea**, Udal Administrazio honen erantzunkizunekoak ez direlako BI- 3224 errepidean *biribilgunea eraikitzea eta trafikoa baretzeko neurriak hartzeko* obren ondorioz hirugarrenek jasan ditzaketan kate edo kalte-galerak.

• **Irailaren 4ko 2009/78 ZENBAKIDUN ALKATETZAREN DEKRETUA.-** Ajangizko Irisgarritasun plana betez, 2009 ekitaldian Mendietako plazako sarrera, Kultur Etxerako sarrera eta Hilerrirako sarrera egokitzeko lanen onarpena.

• **Irailaren 7ko 2009/79 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** OSAKIDETZari, Gernikaldea Bereizmen Handiko zentrorako argindarra hartzeko lanetarako baimena.



Ajangizko Udala

- **Irailaren 7ko 2009/80 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Udaleko 2009ko gizarte larrialdietarako 1/2009 espedientea onartzea.
- **Irailaren 15eko 2009/81 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2010eko maiatzaren 13a Asentzio eguna, Udalerri osorako jaiegun modura proposatzea.
- **Irailaren 16ko 2009/82 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ibilgailuen baja dela kausa, 2009ko ibilgailuaren gaineko zergaren itzulketa burutzea.
- **Irailaren 16ko 2009/83 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** BI-6073-BJ ibilgailuaren 2009ko zerga bueltatzea.
- **Irailaren 16ko 2009/85 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Aurkeztutako ziurtagiriaren arabera, P.I.R.eri, Gernikako Musika Eskolan erroldatuek eta errolda-gabeek ordaintzen dutenaren arteko diferentzia ordaintzea dirulaguntza modura.
- **Irailaren 18ko 2009/86 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Explotaciones Forestales Duñabeitia S.L. enpresari, Ajangizko landalurreko 2. Poligonoko 255, 270 eta 271 partzeletatik egurra atera behar duela eta, Ajangizko herri bideak erabiltzeko udal baimena ematea.
- **Irailaren 18ko 2009/87 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2009ko abuztuaren 21ean gertatutako heriotzaren ondorioz, ezinduen izenean matrikulatuta dagoen 3451-DTK matrikuladun Volkswagen Golf ibilgailuaren gaineko zerga bereziarekiko salbuespena amaitutzat ematea.
- **Irailaren 24ko 2009/88 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Kultur Etxeko gizarte eta kultura dinamizatzaileko zerbitzu kontratua Ainhoa Odriozola Berriatua andreari esleitzea.
- **Irailaren 25eko 2009/89 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Gernika Lumoko San Fidel Ikastolak urriaren 2rako antolatu duen txangorako Herriko Plaza eta Udaletxeko entxufe bat erabiltzeko baimena ematea.
- **Irailaren 25eko 2009/90 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Frontoiko proiektuaren lehiaketan bigarren hautatu izendatu zen GOAZEN FRONTOIRA lemapean aurkeztutako proposamenaren aurkezle den Estudio Arquitectura y Urbanismo, Juan Carlos Martínez Górriz jaunari 2.000 euroko saria ordaintzea eta hirugarren hautatu izendatu zen PILOTARTEAN lemapean aurkeztutako proposamenaren aurkezle den ANTA GESTION, S.L.P.ri 1.500 euroko saria ordaintzea.
- **Irailaren 30eko 2009/91 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Mendieta auzoan frontoi estali berria eraikitzeko proiektuaren erredakziorako Estudio Geoteknikoa burutzeko 4.850,52 euroko gastua onartzea, 2009ko aurrekontuko 121.22799 partidaren gain.
- **Irailaren 30eko 2009/92 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** 2009ko 3. hiruhilabeteko zabor bilketa zerbitzuaren tasen padroia onartzea.



Ajangizko Udala

- **Irailaren 30eko 2009/93 ALKATETZA DEKRETUA.-** Kreditu gaikuntzaren bidezko aldaketa espedientearen hasiera.
- **Irailaren 30eko 94/2009 ALKATETZAREN EBAZPENA.-** Kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea.
- **Urriaren 5eko 2009/96 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Central Forestal S.A.k aurkeztutako eskaera onartu eta 300,50 euroko bermea itzultzea.
- **Urriaren 5eko 2009/97 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Explotaciones Forestales Duñabeitia S.L.k aurkeztutako eskaera onartu eta 2.104,00 euroko bermea itzultzea.
- **Urriaren 5eko 2009/98 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Argana auzoko 4. lurzatian etxebizitza biko eraikuntza lanetarako baimena ematea.
- **Urriaren 5eko 2009/99 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** MAIER S.COOP.ek aurkeztutako eskaera ez onartu eta Urbanizazio lanak hasteko errekerimendua egitea.
- **Urriaren 6ko 2009/100 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** MTCko jardura baimena dela eta Maier S.Coop.ek aurkeztutako alegazioa zati batean onartzea, Irekiera baimenei dagokien alegazioei eta Obra lizentziei buruzko alegazioei ezetza ematea.
- **Urriaren 6ko 2009/101 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA .-** J.G.A.k egindako eskaera onartu eta 2009ko ibilgailuen gaineko zergaren familia ugarientzako laguntza ematea.
- **Urriaren 13ko 2009/102 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maier Technology Centre (MTC)k aurkeztutako jarduerarako baimen eskaerari dagokionez, baimena tramitatu ahal izateko dokumentazio eskaera.
- **Urriaren 14ko 2009/103 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Maloste 10 etxeo teilatuko zenbait teila konpontzeko baimena.
- **Urriaren 16ko 2009/104 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko Kanpantxu auzoko Uriarte Aurrekoa baserriko fatxada berrizteko lanetarako baimena.
- **Urriaren 22ko 2009/105 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Bulego ekipamendu modura, armairu (artxibadore) bat erosteko, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailburuari, dirulaguntza eskaera.
- **Urriaren 22ko 2009/106 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** M.M.Z.k egindako eskaera onartu eta 2009ko ohiko etxebizitzaren ondasun higiezinaren gaineko zergaren familia ugarientzako laguntza ematea.
- **Urriaren 22ko 2009/107 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** V.D.F.ri, euskera ikasteko ikastoroko matrikularen %20-a ordaintzea.



Ajangizko Udala

- **Urriaren 22ko 2009/108 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ibilgailuen baja dela kausa, 2009ko ibilgailuaren gaineko zergaren itzulketa burutzea.

- **Urriaren 29ko 2009/109 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** INCONOR S.L.k jarritako auzi errekurtsioan pertsonatzeko erabakia eta udal ordezkarien izendapena.

- **Urriaren 29ko 2009/110 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Larrucea-aurrecoa baserria osatzen duen 238 finkatik, Andrabaso hariztia (6. Poligonoko 114 lurzatia) eta Ugaztuko-gaztañadizarra gaztañadia (6. Poligonoko 62 lurzatia) banatzeko baimena

3.- AJANGIZKO UDALEKO TALDEEK UDAL KULTUR ETXEKO LOKALAK ERABILTZEKO BANAN-BANAKO LAGAPENAK ARAUTZEKO ORDENANTZAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak azaltzen duenez, Kultur Etxean dauden sei lokalen erabilera nolabait arautzeko proposatzen du Ordenantza hau. Bertan taldeek aurkeztu behar duten eskaera, baimenak emateko protokoloa, baimendutako jarduerak eta burutu ezin direnak... arautzen dira.

Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. Artikuluan araututakoaren arabera, Udal Ordenantzak onartzeko, Osoko Bilkurak hasierako onarpena eman eta gutxienez hilabeteko epean jendaurrean egon beharko da, interesdunek nahi dituzten alegazioak aurkeztu ditzaten. Epe horretan inolako alegaziorik aurkeztuko ez balitz, Ordenantza zuzenean onartutzat joko litzateke.

Adierazitako guztia kontutan hartuta, Udal Osoko bilkurak aho batez ebazten du:

1. Ajangizko udaleko taldeek Udal Kultur Etxeko lokalak erabiltzeko banan-banako lagapenak arautzeko Ordenantza hasieran onestea.
2. Espedientea 30 egunez jendaurrean azaltzea, interesdunek egoki deritzen alegazio, erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ditzaten. Epe honetan ez bada inolako elegiterik aurkezten, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 49. artikuluan araututakoarekin bat, Ordenantza behin betiko onetsizat joko da.

4.- AJANGIZKO UDALEKO 2010 URTERAKO ORDENANTZA FISKALEN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkatetzak, 2010erako Udal Ordenantza Fiskalak onartu behar direla kontutan hartuta, zera azaltzen du: Udaletxeak gero eta demanda gehiago dituela gizarte arloan. Krisi garaia kontutan hartuta, demanda honek gora egin dezakeela kontutan hartuta eta udal dirusarrerak mugatuak direla jakinda, Ordenantzak %2an igotea proposatzen du.

Igoera hau, iazko kontsumoarekiko prezioen gaineko zerga %4,5ean izanda ere Udalak %2,5a igo zuela kontutan hartuta planteatzen da. Honekin igoera proportzional bat aplikatzea bilatzen da.



Ajangizko Udala

Aipatutakoa kontutan hartuta eta Hazienda Batzordeak aurkeztu duen proposamena aintzat hartuta, Ajangizko Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

Lehenengo.- Ondoko Ordenantzen onarpen edo aldaketaren behin behineko onarpena:

- Trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga araupetzen duen ual ordenantza fiskala
- Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduera administratiboak burutzeagatik ordaindu beharreko tasen ordenantza arautzailea.
- Baso aprobetxamenduak ateratzeko eta udal titulartasuneko baso bideen erabilera arautzen duen udal ordenantza fiskala.
Zergek %2ko igoera izango dute.

Bigarren.- Behin behineko onarpena jendaurrera zabaltzea, iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hogeita hamar eguneko epean interesdunek agiriak azter ditzaten eta izanez gero, dagozkion erreklamazio eta iradokizunak aurkez ditzaten, Toki Araudiaren Oinarriak arautzen dituen 7/1989 Legeak, bere 49. Artikuluan eta Toki Ogasunak arautzen dituen 5/1989 Foru Araudiak, 16. Artikuluan xedatutakoaren arabera.

Hirugarren.- Jendaurreko epean elegiterik aurkeztuko ez balitz, behin behineko akordioa behin betiko bilakatuko da.

5.- MAIER-MENDIETA LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN (II. FASEA) LEHEN ZIURTAGIRIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udalak 2009ko irailaren 3an ospatutako batzarrean, besteak beste, Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanak (II. Fasea) CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A., enpresari esleitzea onartu zuen, guztira 248.894,20 euroko kostuarekin.

Lanen zuzendaria den Carlos Ortiz de Zarate ingeniariak, 16.944,94 euroko lanen 1. Ziurtagiria aurkeztu du, burututako lanen adierazle.

Ziurtagiriari, Construcciones Intxausti S.A. enpresak 16.944,94 euroko kostu orokorrarekin aurkeztutako A09-176 faktura eransten zaio.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

1.- Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen I. faseko lehen ziurtagiria onartzea, 16.944,94 euroko kostu orokorrarekin.

2.- Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako 16.944,94 euroko kopuru orokorra duen A09-176 faktura onartzea.

3.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

6.- KANPANTXUKO ARGINDARRA HOBETZEKO PROIEKTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-



Ajangizko Udala

Kanpantxuko argindarra hobetzeko lanak bukatuta, Carlos Ortiz de Zarate obraren Zuzendariak lanen likidazioari dagokion likidazio ziurtagiria aurkeztu du Udaletxean, 45.916,54 euroko kostuarekin. Ziurtagiriari, Construcciones Garatxena enpresak 45.916,54 euroko kostu orokorrarekin aurkeztutako faktura eransten zaio.

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

1.- Kanpantxuko argindarra hobetzeko lanen likidazio-ziurtagiria onartzea, 45.916,54 euroko kostu orokorrarekin.

2.- Construcciones Garatxena enpresak aurkeztutako 45.916,54 euroko kopuru orokorra duen faktura onartzea.

3.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

7.- KREDITU GEHIGARRIEN BIDEZ EGIN BEHARREKO KREDITU ALDAKETARAKO 5/2009 ESPEDIENTEA ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udalak, burutu beharreko ekintzak eta aurrekontuaren arteko diferentziei aurre egiteko, 2009 urterako onartutako aurrekontua aldatu beharra ikusi du eta gehikuntza bidezko kreditu aldaketa proposatzen da diruzaintzako gerakinaren gain.

Aldaketak gastu orokorreari dagozkien partidetan burutu behar dira:

- Mantenimendu gastuak (mantenimendu orokorra, argiteria, bulego materiala, paper bilketa),
- Aldizkako pertsonalaren gastua eta kanpo teknikarien gastuak (teknikari eta asesoreak eta gastu juridikoak). Gastu hauen gehiketak, udalak martxan dituen proiektu desberdinek eta aurkeztu diren errekursoetan dauka eragina. Horrez gain, aldizkako langilegoari dagokionez, udal operaria ordezkatu duten pertsonen sortutako gastuaren ondorio dira.
- Kultur Ekintzak: Kultur Etxean eskaintzen diren ikastaroen ondorioz aurrekontua egokitu beharrak dakar aldaketa hau. Las modificaciones afectan a gastos de carácter general:

GEHITU BEHARREKO PARTIDAK PARTIDAS A INCREMENTAR	KOPURUA CUANTIA
121.13101	7.750,00
121.21100	3.000,00
121.22001	600,00
121.22604	3.000,00
121.22799	3.000,00
442.22799	1.440,00
451.22690	5.025,00



Ajangizko Udala

514.21003	4.000,00
GUZTIRA / TOTAL	27.815,00 €

GUTXITU BEHARREKO PARTIDAK PARTIDAS A DISMINUIR	KOPURUA CUANTIA
Remanente líquido de tesorería	27.815,00 €
GUZTIRA / TOTAL	27.815,00 €

Aldaketa honek, kreditu gehikuntza suposatzen duenez, abenduaren 2ko 10/2003 Foru Arauko 34.3 artikulua araututakoaren arabera, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da.

Hau guztia kontutan izanda, Udal Osoak aho batez onartzen du:

Lehenengo.- Kreditu gehiketaz egindako 5/2009 aurrekontuaren aldaketa behin behinez onartzea.

Bigarren.- Ebazpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, interesdun direnek dagozkien elegiteak aurkezterik izan dezaten.

Hirugarren.- Elegiterik aurkeztuko ez balitz, proposatutako aldaketa behin betiko onartutzat joko da.

Laugarren.- Ebazpen honen berri udal kontuhartzaitzari ematea, beharrezko diren kontabilitate aldaketak egin daitezkan.

8.- ERREGU ETA GALDERAK.-

- Alkate jaunak, Ajangizko Hiri Antolaketarako Plan Orokorraren erredakzio prozedura dela eta, erredakzio taldeak aurrerakina aurkezu duela aipatzen du. Aurrerakin hori jendaurrera aurkezteko, nahita nahiezkoa da “*Estudio conjunto de impacto ambiental*” delakoa aurkeztea. Dokumentua osatzen den unean, jendaurrera aurkeztuko da bi hilabeteko epean nahi duen guztiak proposamenak aurkeztu ditzan.

- Josu Miren Urrutia jaunaren erreklamazioari buruz, Alkate Udalburuak rotondako obrak burutzen ari ziren egunetan bizikletaz izandako erorketa baten ondorio dela aipatzen du. Urrutia jaunak Bizkaiko Foru Aldundiko Herrilan Sailari erreklamazioa aurkeztuta, honek bidea Udalaren eskuetan dagoela aipatu zion, eta ondorioz Aldundiaren erantzunkizuna ez zela. Udaletxean erreklamazioa aurkeztuta, Udalak Bizkailur, Foru Aldundia eta Udalak sinatutako hitzarmena mahaigaineratu eta lanak burutzen ari ziren bitarteko erantzunkizun osoa Bizkailurrena zela erantzun zion, horren arabera Urrutia jaunak aurkeztutako erreklamazioari ezetza emanez. Erreklamazioaren berri bai Bizkailur eta bai lanen empresa arduradunari ere eman zion Udalak. Halere Urrutia jaunak Udalak bidalitako ebazpena errekurritu egin du, Udalari bidearen titular den heinean erantzunkizuna eskatuz.



Ajangizko Udala

- Frontoiko proiektuari dagokionez, Udalak estudio geoteknikoa agindu zuen zimentazio kalkuluak behar bezala egiteko. Datu horiekin, proiektua azaroan aurkeztuko dutela espero da.

- Maier inguruko legalizazio prozedurari buruz, Alkate jaunak urbanizazio proiektua onartzean exekuzio epe batzuk onartu zirela gogoratzen du. Epe horien arabera, lehenengo fasea eginda beharko luke, baina ez dira oraindik lanak hasi. Hori dela eta, Udalak Maiერი berehalako exekuziorako dekretu bat agindu zion, lanak hasi ezean Udalak neurriak hartuko zituela ohartaraziz. Maierrek exekuzio epeak atzeratzeko eskaera aurkeztuta, Udalak ezetza erantzun dio, izan ere onartutako epeak Maierrek berak aurkeztutakoak bait ziren.

Horrez gain, Maierrek proiektu berri bat ere aurkeztu du Udaletxean: MTC zentroa handitzeko proiektua. Proiektu honek bi jarduera mota ditu, alde batetik bulegoak eta bestetik prototipoen laborategi bat. Edozein eraikuntza egiteko urbanizazioa eginda edo egiten egon beharko lukeela kontutan hartuta, Udalak urbanizazio lanak bermatzeko eskaera egin zion Maiერი proiektu honen baimena tramitatzetik izan zezan. Maierrek aurkeztu du 1.185.000 euroko bermea, eta une hauetan jarduera baimenaren tramitazioa martxan dago.

- Udalak abian dituen kontentzosoiei dagokienez, gaur egun lau ditu Udalak bere aurka jarrita:

- Bizkailurreko etxebizitzaren esleipenaren kontra
- Kultur Etxe ondoko urbanizazio lanak direla eta INCONOR enpresak jarritakoa
- Frontoiko proiektuaren erredakzioa esleitzeko onartutako oinarrien kontra Ingenierien Bazkunak jarritakoa
- IBERDROLAk 2004 urteko tasak direla eta jarritakoa

Azken puntuarekin bat eginda, Roman Etxeandia jaunak Ajangizkoak ziren eta Gernikak kobratu zituen tasak nola dauden galdetu du. Alkateak Gernikako Udalarekin azarorako geratu dela azaltzen du. Azarorako, egoera aztertzen duen informe bat ekarriko omen dute Udalera, gero horretan oinarrituta erabakiak hartzeko.

Bestalde, Santa Luziarako argindarra eramateko Ajangizen egin behar diren lanak direla eta, Gernikako Udalak hamabi farola jarri dituela Ajangizen aipatzen du Alkateak. Farola hauen instalazio kostua eta instalaziorako beharrezko obra zibila ere Gernikako Udalak ordaindu duela azaltzen du.

Santa Luziarako argindarra eramateko lanetarako Iberdrolak baimen eskaera aurkeztu du Udalean, baina baimen hori eman ahal izateko beharrezko iden beste baimenak aurkeztu eskatu zaizkio Udaletik: Bizkaiko Foru Aldundiko herrilan sailekoa errepidea gurutzatzeko, Patronatoa...

- Alkateak urriaren 26ko 13/2009 Erret Dekretu Lege bidez onartutako Estatu Fondoaren aipamena ere egiten du. 2010 urterako 48.108 euroko aurrekontua jasotzen du Ajangizentzako, Dekretu bereko 9. Artikuluan zehazten dituen lanak egiteko.

- Batzarra bukatzeko, Elizako aparejadorea den Urrutxurtarekin izandako elkarrizketaren berri eman du Alkateak. Urrutxurtuk, aurton arkuko "klabea" aldatuko dutela esan dio, horretarako arkua apuntalatu eta guztia desmontatu behar omen dute. Baimena lortu ahal izateko Segurtasun eta Osasun estudioa aurkeztu beharko dutela jakinerazi zaie.



Ajangizko Udala

Datorren urterako eta beti ere Urrutxurtuk esandakoaren arabera, korua, eskailerak eta teilatua egiteko asmoa dauka.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko bederatzi eta erdiak direnean, eta horren sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen honek, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA